

**«UDALEKUAK» PROGRAMAN PARTE HARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK  
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

**1. artikulua.- Objektua. Zerga-egitatea.**

Basauriko Udalak haurrentzako «Udalekuak» programaren barruan aurrera eramane beharreko zerbitzuek osatzen duten prezio publiko hauen zerga-egitatea.

**2. artikulua.- Ordaintzera behartuak daudenak. Subjektu pasiboak.**

Hemen araututako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte Udalak antolatutako udalekuetan parte hartzen duten pertsona fisikoek.

**3. artikulua.- Prezio publikoa kobratzea. Sortzapena.**

Prezio publikoak ordaindu beharko dira Kultura Atalak onartuen zerrendak argitaratzeko ezarritako data baino lehen.

**4. artikulua.- Osagai kuantitatiboak.**

«Udalekuak» programaren prezio publikoak honako tarifa hauen arabera izango dira, aldaketarik ematen ez bada:

	<b>Egun erdiko udalekuak</b>	<b>Egun osoko udalekuak</b>	<b>Kirol udalekuak</b>
<b>1. seme-alaba</b>	47	89	101
<b>2. seme-alaba</b>	36	66	74
<b>3. seme-alaba</b>	30	53	60
<b>4. seme-alaba eta ostekoak</b>	24	43	47
<b>Diru-sarreraren Bermerako Errenta jasotzen dutenak (edo hura izapidetzen ari direnak)</b>	5	10	12

Hala eta guztiz, udalekuetako aldiren batean jaiegunik balego, prezioak honako hauek izango dira:

	<b>Egun erdiko udalekuak</b>	<b>Egun osoko udalekuak</b>	<b>Kirol udalekuak</b>
<b>1. seme-alaba</b>	43	81	92
<b>2. seme-alaba</b>	33	60	67
<b>3. seme-alaba</b>	27	48	54
<b>4. seme-alaba eta ostekoak</b>	22	39	43
<b>Diru-sarreraren Bermerako Errenta jasotzen</b>	4	7	9

<b>dutenak (edo hura izapidetzen ari direnak)</b>			
---	--	--	--

## **6. artikulua.- Kudeaketa eta likidazioa.**

Kultura Atalak egingo du prezio publiko hauen kudeaketa eta likidazioa. Zenbatekoa aurretiaz ordaintzea eskatuko da, aipatutako instalazioak erabili ahal izateko.

Prezio publikoak, jarduera hasi aurretik ordainduko dira beti. Horretarako, onuradunei kontu-korrontean dagokion kargua egingo zaie Kultura Atalak adierazitako datan eta, betiere, tokien behin betiko esleipena argitaratu aurretik.

Ordainketa ez bada Ordenantza honetan eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritako modu eta epeetan egiten, zerbitzua eten ahal izango da.

Foru Dekretuan arautu gabe dagoen guztiari buruz —bereziki, epeen erregimenari eta zorraren ordainketa-tokiari dagokionean—, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudian eta Basauriko Udaleko zerga ordenantzetan xedatutakoari jarraituko zaio.